



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2003ko irailaren 29a

6. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67.bis artikulua aldatzekoa, Aralar parlamentu-taldeak aurkeztua (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuia premiatzen da behar diren kudeaketak egin ditzan Mexikoko Gobernuaren eta Nazio Batuen aurrean, eta helaraz diezaien Mexikoko zenbait hiritan desagertutako emakume eta neskei buruzko kezka, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztua (5. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Araitz, Goizueta, Leitza eta eremu horretako bertze herrietan osasun larrialdietan suhiltzaileek parte hartzeko dauden irizpideei buruzkoa, Aralar parlamentu-taldeak egin (7. or.).
- Galdera, Erronkari ibarra eta turismoari buruzkoa, Aralar parlamentu-taldeak egin (7. or.).
- Galdera, Araitz, Goizueta, Leitza eta eremu horretako bertze herrietan osasun larrialdiei aurre egiteko dauden irizpideei buruzkoa, Aralar parlamentu-taldeak egin (8. or.).
- Galdera, ezgaitasunak dituzten pertsonak kontratatzeko aurreikusiriko prozeduraren aplikatzeari buruzkoa, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak egin (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak ezarritako telefono kode berriari buruzkoa, Aralar parlamentu-taldeak egin (9. or.).
- Galdera, herri txikietan Interneteko abiada handiko zerbitzua ezartzeari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egin (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuia 3895/2003 konstituziokontarakotasuneko errekurtsioa dela-eta egiten ari denari buruzkoa, Aralar parlamentu-taldeak egin (11. or.).
- Galdera, pentsio txikiak dituzten alargunek eskatutako laguntzei buruzkoa, Aralar parlamentu-taldeak egin (12. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Bizikidetasun eta Nazioarteko Elkartasun Batzorde Berezia sortzea eta haren eraketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko Arauak (14. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Batzorde arrunten osaera (15. or.).
- Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kide bat hautatzea (18. or.).
- Erabakia, Nafarroako Parlamentuan erabilera komunekoak diren areto eta geletan erretzea debekatzen duena (18. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67.bis artikulua aldatzekoa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Aralar parlamentu-taldeak Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67.bis artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.-** Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67.bis artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**2.-** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2003ko irailaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67.bis artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena**

**ZIOEN AZALPENA**

Martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen bitartez 67. bis artikulua gehitu zitzaion abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeari; halaber, bigarren xedapen gehigarria onetsi zen. Bi arau horiek alargun-pentsioen ondoriozko kenkariari buruzkoak dira.

Lege proposamen honen asmoa da arau horien testua aldatzea; horretarako, arrazoi hauek adierazi nahi ditugu:

16/2003 Foru Legeko 1-40 artikulua eta bigarren xedapen gehigarriak aurka egiten diete hein batean 11/2003 Foru Legeko izpirituari eta letrari, 2003ko uztailaren 28ko Eledunen Batzarrak hartutako erabaki bidez berretsia. Arau horietako lehenak, zeinak Pertsona fisikoen errentari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. bis artikulua berria ezartzen baitu, 900 euroko pentsio-osagarria xedatzen du urtean 2.700 eurokoak baino pentsio txikiagoak jasotzen dituzten alargunentzat. Errentako kuotako gehikuntza hori ia eragingabea suertatzen ari da, eta gainera 11/2003 Foru Legearen izpirituaren kontra doa, gutxieneko soldata baino pentsio baxuagoa daukaten alargun guztientzako laguntzarik ezartzen ez duen heinean. Are gehiago: 67. bis artikulua berriaren testuan bertan badago jadanik arau bat, lege proposamen honetan mantentzen dena, agintzen duena onura horrek ezin ekartzea gutxieneko soldata baino dirusarrera handiagorik. Hau da, ekitaldi honetan onetsiriko bi foru lege horiek elkarrekin ados jarriko lituzke testu berriak, aintzat hartu gabe horietako bat oraintxe bertan Konstituzio Auzitegian errekurrirua egotea.

Aurreko guztiaz gain, esan behar da alargun-pentsioetarako laguntza fiskal eta ekonomikoen ereduak, autonomia erkidego ezberdinetan proba-saioetan daudenak, erreferentzia gisa dutela betiere gutxienerako soldata.

Bidezko banaketaren arloko arrazoiak dira, baina baita Nafarroako alargunak aintzat hartzeari dagozkionak ere, lege proposamen hau aintzat hartu eta onestera bultzatu behar dutenak. Are gehiago, ikuspegi ekonomiko huts batetik, begi-bistakoa da pentsioen hobekuntza edo gehikuntza bat ekartzen duen diru oro kontsumora berbidertzen dela eta ekonomian eragin pizgarri ezaguna daukala.

**Lehen artikulua.** Abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. bis artikulua aldatuko da. Testu hau izanen du:

“67. bis artikulua. Alargun pentsioen ondoriozko kenkaria.

Kasuan kasuko kuota diferentziala finkatu ondoren, alarguntasun pentsioa jasotzen duten subjektu pasiboek, urtean 6.000 euro baino gutxiago kobratzen badituzte, eta Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onetsi zuen ekainaren 20ko Legegintzako 1/1994 Errege Dekretuaren 50. artikuluan aipatutako osagarriak jasotzeko eskubidea badute, kenkari osagarria egiten ahalko dute, gehienez ere 900 eurokoa urtean.

Alarguntasun pentsioaren zenbatekoa, urtean, aurreko urteari dagokiona izanen da, aipatu osagarriak kenduta, salbu eta jasotzen hasten den urtean, kasu horretan zenbatekoa aldi horretakoa izanen baita.

Alarguntasun pentsioa zergaldi osoan jasotzen ez bada, pentsioaren zenbatekoa urtebetekoa izanen da.

Kenkaria kalkulatu da zergaldian zehar alarguntasun pentsioa jasotzeko eskubidea ematen duten egun kopuruaren arabera.

Betiere, urteko alargun pentsioaren zenbatekoak, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuko 50. artikulua aipatzen dituen osagarriek eta artikulua honetan ezarritako kenkariak, batuta, ezin izanen dute gainditu lanbide arteko gutxienerako soldata.

Gizarte Ongizate, Kirol Eta Gazteri Departamentuari eskatzen ahalko zaio kenkari hori denbora baino lehen pagatzeko. Kasu horretan ez da zergako kuota diferentzialaren gaineko kenkaririk eginen.

Kenkaria egiteko prozedura erregelamendu bidez arautuko da, bai eta behar baino lehenago jasotzeko eskaera egin eta eskuratzekoa ere.”

**Bigarren artikulua.** Martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legeko bigarren xedapen gehigarria aldatuko da. Testu hau izanen du:

“2004ko urtarrilaren 1etik aurrera, urtean 6.000 euro baino gutxiagoko alargun pentsioak jasotzen dituzten subjektu pasiboek –2003-01-01etik izandako urteko K.P.I.ren aldaketaren arabera gehituriko kopurua– kenkari bat aplikatu ahal izanen dute pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kuotan, hain zuzen ere urteko 900 eurorainokoa, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67.bis artikuluan ezarritakoaren arabera. Kenkari hori egiteko prozedurak erregelamendu bidez ezarriko dira.”

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da behar diren kudeaketak egin ditzan Mexikoko Gobernuaren eta Nazio Batuen aurrean, eta helaraz diezaien Mexikoko zenbait hiritan desagertutako emakume eta neskei buruzko kezka**

*SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA*

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da behar diren kudeaketak egin ditzan Mexikoko Gobernuaren eta Nazio Batuen aurrean, eta helaraz diezaien Mexikoko zenbait hiritan desagertutako emakume eta neskei buruzko kezka".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 22an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko irailaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**MOZIOAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Mexikoko hiri batzuetan emakumeak eta neskek desagertzeari buruzkoa, behar den batzordeak aintzat hartu eta onetsi dezan.

Zioen azalpena:

Mexikoko zenbait hiritan, hala nola Ciudad Juárez eta Chihuahuan, azken hamarkadan desagerturiko emakume eta nesken kasu ugariak direla-eta, Mexikoko emakumeen eta biktimen familiarterkoen talde batek "Nuestras hijas de regreso

a casa" ("Gure alabak, etxerako itzuleran") izeneko mugimendua sortu dute, zeina, askotariko elkarte sozial eta zibilekin batera, egoera horiek salatzen eta gertaturikoa argitzea eskatzen ari baita.

Espainiako prentsan berriki agerturiko datuek egoera lasgarri horren norainokoa azaltzen digute; horien arabera, 1993ko abendutik aurtengo urtarrilera arte, hau da, hamarkada batean, 4.476 desagertu izan dira, eta horietatik 320 gorpu aurkitu dira Ciudad Juárezean.

Ez dugu ahaztu behar desagerturikoen adina, batez beste, 14tik 16 urtera bitartekoa dela; are gehiago, horietakoren batek ozta-ozta zituen 10 urte bortxatu, torturatu eta erail zutenean.

Desagertuen ama eta familiarterkoen samin eta amorruekin bat egiten dugu, eta "Alto a la impunidad. Ni una muerte más" ("Zigorrik eza amaitu. Heriotza gehiagorik ez") kanpainaren salaketa geureganatzen dugu. Kanpaina horretan 300 elkarte baino gehiagok parte hartzen dute, eta haien manifestuan, "No queremos otra Ciudad Juárez en ninguna parte del mundo" ("Ez dugu beste Ciudad Juárez bat nahi munduko beste inon") izenekoan, Mexikoko Gobernuari eskatzen diote, besteak beste, nazioarteko erakundeek emandako gomendioak bete ditzala, Ciudad Juárezeko erailketa zigorgabeak amaiarazteko.

Halaber, erakunde horiek eskatzen dute legegintzaren eta politika publikoen arloko neurriak har daitezela, Mexikon eta bereziki Ciudad Juárezean emakume guztien giza eskubideak babesteko.

"Nuestras hijas de regreso a casa" elkartearen helburuetako bat da nazioari eta nazioarteari eskatzea Mexikoko toki-, estatu- eta federazio-agintariak behartu ditzaten arazo honi irtenbidea

bilatzeko behar diren pertsonak eta baliabide materialak bideratzera.

Egoera ikusirik, eta elkarre horrek nazioarteari solidaritaterako eta giza eskubideen defentsarako eginiko eskaerei erantzunez, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak honako mozio hau aurkezten du, behar den batzordeak aintzat hartu eta onesteko:

Nafarroako Parlamentuaren osoko bilkurak Espainiako Gobernuaren premiaz du behar diren urratsak eman ditzan Mexikoko Gobernuari eta Nazio Batuei honakoak helarazteko:

– Bai talde politikoek bai giza eskubideen eta emakumeen eskubideen defentsaren alde jarduten duten erakunde eta emakume-elkarteek dau-

katen kezka, Mexikoko hiri batzuetan emakumeak eta neskek desagertzearen ondoriozkoa.

– Emakumeari buruzko Nazio Batuen IV. Mundu Biltzarrean eta Emakumeak Diskriminatze-ko era guztiak ezabatzeko Konbentzioan ezarritako gidalerroak bete beharra, emakume eta nesken giza eskubideak bermatzeko.

– Bermatu beharrekoak direla ikerketa-prozedura egokiak, errudunak zigortzea, kalteak ordaintzea eta biktima eta haien familiartekoen babesa.

– Biktimei eta haien familiartekoei laguntzeko programa integral bat ezarri beharra.

Iruñean, 2003ko irailaren 16an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Aritz, Goizueta, Leitza eta eremu horretako bertze herrietan osasun larrialdietan suhiltzaileek parte hartzeko dauden irizpideei buruzkoa**

*ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 22an egindako bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak Aritz, Goizueta, Leitza eta eremu horretako bertze herrietan osasun larrialdietan suhiltzaileek parte hartzeko dauden irizpideei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko irailaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Aralar talde parlamentarioak, Nafarroako Parlamentuko Araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, idatziz erantzun dakion.

Aritz, Goizueta, Leitza eta eremu horretako bertze herrietan osasun larrialdietan suhiltzaileek parte hartzeko dauden irizpideen azalpena.

Iruñean, 2003ko irailaren 12an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

---

**Galdera, Erronkari ibarra eta turismoari buruzkoa**

*ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 22an egindako bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak Erronkari ibarra eta turismoari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko irailaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**GALDERAREN TESTUA**

Aralar talde parlamentarioak, Nafarroako Parlamentuko Araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galderak egiten ditu, idatziz erantzun dakizkion.

1.- Zein dira Erronkari Ibarreko turismo-fluxuaren datuak?

2.- Erronkari Ibarrean turistei ematen zaizkien zerbitzuez asebetetze eta gabezia maileri buruz egindako inkestetan, zein dira emaitzak?

Iruñean, 2003ko irailaren 12an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Galdera, Araitz, Goizueta, Leitza eta eremu horretako bertze herrietan osasun larrialdiei aurre egiteko dauden irizpideei buruzkoa**

### *ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 22an egindako bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak Araitz, Goizueta, Leitza eta eremu horretako bertze herrietan osasun larrialdiei aurre egiteko dauden irizpideei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko irailaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar talde parlamentarioak, Nafarroako Parlamentuko Araudian xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du, idatziz erantzun dakion.

Araitz, Goizueta, Leitza eta eremu horretako bertze herrietan osasun larrialdiei aurre egiteko dauden irizpideen azalpena.

Iruñean, 2003ko irailaren 12an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Galdera, ezgaitasunak dituzten pertsonak kontratatzeke aurreikusiriko prozeduraren aplikatzeari buruzkoa**

### *FORU PARLAMENTARI MIGUEL JOSÉ IZU BELLOSO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 22an egindako bilkuran, foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak ezgaitasunak dituzten pertsonak kontratatzeke aurreikusiriko prozeduraren aplikatzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko irailaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Nafarroako Foru Komunitatean ezgaitasuna duten pertsonen enplegua lortzeari buruzko gai batzuk arautzen dituen maiatzaren 31ko 16/2002 Foru Legeak 1.1 artikuluan ezartzen du ezen Nafarroako administrazio publikoen lan-eskaintza

publikoetan postu hutsen 100eko 5 gordeko direla 100eko 33ko edo gehiagoko ezgaitasuna daukaten pertsonen bete ditzaten, baldin eta, betiere, hautaketa-probak gainditzen badituzte eta justifikatzen badute kasuan kasuko eginkizunak betetzeko bateragarritasuna.

Halaber, foru lege horretako 1.3 artikulua xedatzen duenez, "Foru Komunitateko administrazioan eta haren menpeko erakunde autonomoetan 1. idatz-zatiko lehen lerroaldean ezarritako ehunekoa betetzen ez den bitartean, organo eskudunek aitortutako ezgaitasuna duten pertsonen lehentasuna izanen dute aldi baterako kontratatzeke, lehiaketa-oposizioa gainditu baina lanposturik gabe gelditu direnen zerrenda agortutakoan".

Aipaturiko araua aplikatzen hasi zenetik lehen urtea pasa denean, une egokia da hari buruzko lehen ebaluazio bat egiteko; zehazki, ea ezgaitasunak dauzkaten pertsonak aldi baterako kontratatzeke ezarritako prozedura aplikatzen ari ote den.

Horregatik, Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei erantzun diezaien nahi du:



– Ezgaitasunen bat duten pertsonekin azken lan-eskaintza publikoetan bete diren lanpostuen ehunekoa zein da?

– Lanposturik bete bada, zenbat ezgaitu kontratatu dira aldi baterako, 1.3 artikuluan aipaturiko prozedurari jarraikiz?

– 16/2002 Foru Legeak indarra hartu zuenetik, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta bere erakunde autonomoek aldi baterako kontratatuak izateko izangai-zerrendak egiteko hautaketa-probetarako zenbat deialdi onetsi eta argitaratu dira?

– Zer tramite betetzen dira ezgaituak aldi baterako kontratatzeak lehenetsuna izan dezan zerrendak egiteko hautaketa-proben deialdiarekiko? Zer prozedura erabiltzen da, zerrendak egiteko hautaketa-probetarako deialdia egin aurretik, ezgaitasun bat daukaten pertsonak kontratatu ezina egiaztatzeke?

– Kasua bada, zer beste neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak azken urte honetan zehar, aipaturiko foru legean adierazitako helburua bete-  
tzeko?

Iruñean, 2003ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Miguel José Izu Beloso

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak ezarritako telefono kode berriari buruzkoa**

### *ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 22an egindako bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernuak ezarritako telefono kode berriari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko irailaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar talde parlamentarioak, Nafarroako Parlamentuko araudian xedatutakoaren arabera, Nafarroako Gobernuak paratu duen telefono kode berria dela eta, ondoko galdera egiten du idatziz erantzun dakion.

1.- Abuztuaren erdialdean hasita publizitate kanpaina erraldoia egiten ari da Nafarroako Gobernuak paratu duen telefono kode berriaren albiste emateko. Nori dago zuzendua kanpaina hau? Zein departamentuk du kanpaina honen ardura? Nork aginduta diseinatu da?

2.- Zein da kanpaina hau egiten duen publizitate enpresa? Zein da kanpaina honetan erabiliko den diru aurrekontua? Zein hedabidetan eta euskarritan ari da gauzatzen informazio kanpaina?

3.- Zein dira erabiltzen ari diren hizkuntzak? Euskararik erabiltzen ari al da Nafarroako Gobernuak informazio kanpaina honetan?

4.- Euskararik ez bada erabili, zergatik ez da erabili?

Aralar talde parlamentarioak galdera hauek egiten ditu Ondokoa kontuan hartuta:

1.- Nafar guztiok dugu informatuta egoteko eskubidea.

2.- Euskara Nafarroako hizkuntza da.

3.- Nafarroako euskaldunek (populazioaren %10-15) eskubidea dute informazioa euskaraz jasotzeko.

4.- Nafarroako bi hizkuntzak erabiltzeak nafar arteko oreka eta trinkontze soziala ekartzen du. Euskara baztertzeak, aldiz, euskaldunak arrotz egiten gaitu gure lurraldean.

5.- Nafarroako gobernuari eskatzen diogu euskara eta gaztelania modu orekatuan erabil ditzan, nafar guztiak integratuak senti daitezen gure Nafarroan.

Hortaz, eskatzen du galdera hauek erantzun idatzia eman dakien.

Iruñean, 2003ko irailaren 16an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Galdera, herri txikietan Interneteko abiada handiko zerbitzua ezartzeari buruzkoa**

### *FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 22an egindako bilkuran, foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak herri txikietan Interneteko abiada handiko zerbitzua ezartzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko irailaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuoko Industria, Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Enpresek eta herritarrek ordenagailuak erabiltzea eta Interneten sarbidea izatea gero eta

garrantzitsuago izaten ari dela kontuan izanik, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Zenbat eta zein dira, Nafarroako Foru Komunitatean, Interneterako abiada handiko sarbidea ematen duen inolako zerbitzurik ez daukaten herriak?

– Zer asmo dago Nafarroako Foru Komunitateko herri txikietan Interneterako abiada handiko sarbide-zerbitzuak ezartzeko, hain zuzen ere telefonia-enpresek zerbitzu hori ematen ez duten tokietan?

Interneterako abiada handiko sarbidea izan dezaten Nafarroako Foru Komunitatean egoitza duten pertsona fisikoei soilik bideraturiko laguntzei eta dirulaguntzei dagokienez, dirulaguntza horiek nola gauzatzeko asmoa dago eskatzaileak bere herrian zerbitzu horiek eskueran ez dituen kasuetan?

Iruñean, 2003ko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nafarroako Gobernua 3895/2003 konstituziokotrasuneko errekurtsua dela-eta egiten ari denari buruzkoa**

### **ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 22an egindako bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak Nafarroako Gobernua 3895/2003 konstituziokotrasuneko errekurtsua dela-eta egiten ari denari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko irailaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zioak:

Martxoaren 7ko 11/2003 Foru Legearen aurka Espainiako gobernuburu Aznar jaunak jarritako konstituziokotrasuneko errekurtsua dela eta, errekurtsu hori izapidatzeko onartua izan dela jakinarazten duen Auzitegi Konstituzionalaren probidentziaren jakinarazpena sartu zen 2003ko uztailaren 22an Nafarroako Parlamentuko Erregistroan; era berean, jakinarazten zen lege horren indarraldia eten egin zela errekurtsua jarri zenean, eta aukera ematen zitzaien Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari prozesuan pertsonatu eta alegazioak egiteko.

Eledunen Batzarreko kideei modu ofiziosan esan zitzaien, 2003ko uztailaren 28an eginiko bilkuran, Nafarroako Gobernua, beharbada, ez zela prozesu horretan pertsonatuko, 3895/2003 konstituziokotrasuneko errekurtsuan alegia.

Hala ere, 11/2003 Foru Legeak, duen edukia-gatik, garrantzi berezia du; izan ere, bidegabekeria tratatutako gizarte-talde baten eskubide sozioekonomikoak babesten ditu, eta, elkartasunaren printzipioa oinarri hartuta, talde horren merezimendu eta beharrek lehentasunezkoak behar lukete. Gainera, autogobernua aldezte garrantzitsua izaki beti, are garrantzitsuagotzat hartu behar da baldin eta horren baitan badaude milaka nafarren itxaropenak, hau da, legeek bidegabekeriaren trataera ematen dieten milaka nafarren itxaropenak. Sinboloak, izenak, mapak eta bestelakoak direla eta, autogobernuaren aldezte arranditsua egiten da, baina ez du horrek justifikazio sozial errazik ez bada kemen beraz autogobernuaren alde egiten nafarrak diren pertsonen eskubideak jokoan daudenean.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditugu:

1.- Martxoaren 7ko 11/2003 Foru Legearen aurka Espainiako gobernuburu Aznar jaunak jarritako konstituziokotrasuneko 3895/2003 errekurtsua dela-eta Auzitegi Konstituzioanalak 2003ko uztailaren 15ean emaniko probidentziari buruz, hartu al du Nafarroako Gobernuak berriazko erabakirik?

2.- Nafarroako Gobernuak berriazko erabakirik hartu badu Gobern u Kontseiluan, zein da ebazpen edo erabaki horren testu osoa, baita jakinaren gainean dagoela adierazteko besterik ez bada izan ere?

3.- Eskatu al du Nafarroako Gobernuak txosten juridikorik erabakitzeko prozeduran pertsonatu edo ez pertsonatu, edo, pertsonatzekotan, zer jarrera izan edo zer eduki aldeztu 3895/2003 zenbakiko konstituziokotrasuneko errekurtsuan? Baiezkoan, zein da txosten horien testua?

Iruñean, 2003ko irailaren 16an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

## **Galdera, pentsio txikiak dituzten alargunek eskatutako laguntzei buruzkoa**

### *ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 22an egindako bilkuran, Aralar parlamentu-taldeak pentsio txikiak dituzten alargunek eskatutako laguntzei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko irailaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hauek aurkeztu ditu Nafarroako Gobernuo Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Zioak:

Nafarroako Parlamentuak 11/2003 eta 16/2003 Foru Legeak onetsi eta gero, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak, 2003ko martxoan eta apirilean, zenbait kanpaina edo/eta deialdi egin zituen pentsio txikiak zituzten alargunentzako laguntzak ezartzen zituzten lege horiek gauzatzeko. Horretarako, zenbait iragarki argitaratu ziren; horietan, adierazten ziren onuradunen izenak, laguntzak eskatzeko modua bai eta zenbait xehetasun ere, esate baterako eskariak non eta noiz jaso behar ziren. Iragarki horietan aipatzen zenez, laguntza horiek 2003 urtarrilaren 1etik aurrera izanen zuten eragina.

Nafarroako Gobernuo lehendakari Sanz jaunak esan zuenez —adierazpenak Diario de Navarra argitaratu ziren, 2003ko martxoaren 27an—: “legea ez da indarrean jarri, lehenik dekretu bat prestatzen ari garelako Nafarroako Kontseiluari igorri eta hark nahitaezko txostena eman dezan.” Hauteskundeen aurreko adierazpen horietan, Sanz jaunak hau azpimarratu zuen: “alargunek oso lasai egon behar dute, Gobernuak beti baitago legea betetzera behartuta, baita nahi ez badu ere, eta, aplikatzen duenean aplikatzen duela, atzeraeragina bermatzen baitu legeak berak.”

Bestalde, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2003ko uztailaren 28an eginiko bilkuran, erabaki zuen adierazpen politiko bat egitea

martxoaren 7ko 11/2003 Foru Legearen alde, eta Auzitegi Konstituzionalaren aurrean pertsonatzea Espainiako gobernuburu Aznar jaunak jarritako konstituziokontrautasuneko errekurtsioa inpugnatzeko.

Bilkura hartan bertan, halaber, erabaki zen Nafarroako Gobernuari eskatzea 11/2003 Foru Legea bete zezala legeak izaniko indarraldian, hau da, onetsi zenetik (2003ko martxoaren 14an) Auzitegi Konstituzionalak indarraldia eten arte (2003ko ekainaren 13an), Espainiako Estatuko gobernuburu Aznar jaunak hala eskatuta.

Nafarroako Gobernuaren aurrean eskari asko aurkeztu ziren, jatorrizko agiriak erantsita zituztela; eskari horietako askok, hala ere, ez dute erantzunik izan.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditugu:

1.- Zenbat eskari aurkeztu zaizkio Nafarroako Gobernuari alargun pentsioak berdintzeko laguntzak jasotzeko eskatuz, 11/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera, eta Nafarroako Gobernuak adierazitakoekin bat? Egin al da edo ari al da egiten inongo eroldarik edo kalkulurik jakiteko zenbat diren 11/2003ko Foru Legean aurreikusitako laguntza bereziak jasotzeko eskubidea duten alargunak?

2.- Zenbat eskari aurkeztu zaizkio Nafarroako Gobernuari 900 euroko laguntzak jasotzeko eskatuz, 16/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera, eta Nafarroako Gobernuak adierazitakoekin bat? Egin al da edo ari al da egiten inongo eroldarik edo kalkulurik jakiteko zenbat diren 11/2003ko Foru Legean aurreikusitako laguntza bereziak jasotzeko eskubidea duten alargunak?

3.- Eskari horietako zenbatek izan du baiezko erantzuna kasu horietako bakoitzean?

4.- Eskari horietako zenbatek izan du ezezko erantzuna kasu horietako bakoitzean?

5.- Eskari horietako zenbat dauzka Nafarroako Gobernuak oraindik ebatzi gabe edo espresuki erantzun gabe kasu horietako bakoitzean?

6.- Zer diru kopuru aurreikusi da 2003 urterako 11/2003 Foru Legea aplikatu eta baiezko erantzuna jaso duten eskariei aurre egiteko?

7.- Zer diru kopuru aurreikusi da 2003 urterako 16/2003 Foru Legea aplikatu eta baiezko erantzuna jaso duten eskariei aurre egiteko?

8.- Nafarroako Gobernuak eten al du 11/2003 Foru Legean ezarritako laguntza berezietakoren bat, laguntza hori 2003ko uztailaren 22aren aurretik ematen hasia bazen ere –Auzitegi Konstituzionalak legearen indarraldiaren etena ofizialki jakinarazi zuen eguna–, ala 2003ko martxoaren 14tik 2003ko uztailaren 22ra arte hasi gabe zegoen

laguntza horiek ematen? Prestazio horiek eten badira, zenbat dira eta zenbat dira baiezkoa jaso baina hasi gabeak?

9.- Igorri al zitzaion Nafarroako Kontseiluari Sanz jaunak 2003ko martxoaren 27an Diario de Navarran eginiko adierazpenetan aipatzen zuen foru dekretuaren zirriborroa?

Iruñean, 2003ko irailaren 16an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

**G saila:****TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Bizikidetasun eta Nazioarteko Elkartasun Batzorde Berezia sortzea eta haren eraketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko Arauak**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 22an eginitako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Bizikidetasun eta Nazioarteko Elkartasun Batzorde Berezia sortzea.

**2.** Eledunen Batzarrarekin adosturik, batzorde horren eraketa, antolamendu eta funtzionamenduari buruzko honako arau hauek onestea:

“Lehenengoa.- Bizikidetasun eta Nazioarteko Elkartasun Batzordea sortzen da. Batzorde hau berezia izanen da, eta haren aztergaiak izanen dira Nafarroako Foru Komunitateko herritarren bizikidetasunaren garapenarekin zerikusia duten gaiak eta gure erkidegoak munduko herrialdeetako duen elkartasunarekin lotutako aferak.

Bigarrena.- Batzordeak aztertuko ditu Mahaiak –Eledunen Batzarrari entzun ondoren– erabakitako gaiak.

Hirugarrena.- Batzordea honakoek osatuko dute: hamar kide baino gehiagorik ez duen parlamentu-talde bakoitzeko ordezkari batek, hogeitakide baino gehiagorik ez duen parlamentu-talde bakoitzeko bi kidek, eta hogeitakide baino gehiagorik ez duen parlamentu-talde bakoitzeko hiru ordezkariak.

Laugarrena.- Batzordea eratzeko bilkura Legebiltzarreko Mahaiak erabakitzen duen egunean egingen da, parlamentu-taldeek haien ordezkariak izendatu ondoren.

Bosgarrena.- Batzordeburua Parlamentuko Lehendakaria izan ahalko da, eta batzordeak bere eratzeko-bilkuran hautatuko du batzordeburua.

Batzordeari laguntzen dion legelari bera izanen da batzordeko idazkari.

Seigarrena.- Batzordeak boto ponderatuen sistemaren bidez hartuko ditu erabakiak. Horretarako, bere parlamentu-taldea zenbat parlamentari osatu, horrenbeste boto izanen ditu batzordeko kide bakoitzak (Parlamentuko Lehendakariak, bilkurara etortzen denetan, izan ezik).

Zazpigarrena.- Batzordeak txosten eta irizpen gisara emanen ditu erabakiak. Horiek Mahaira eramanen dira, eta Mahaiak erabakiko du, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, zer prozedurari jarraituz tramitatuko diren erabaki horiek.

Zortzigarrena.- Batzordeak bere eginkizunak beteko ditu Mahaiak Batzordea desegitea erabaki arte.

Bederatzigarrena. Batzordearen antolamenduari eta funtzionamenduari dagokienez, arau hauetan aurreikusi ez den guztian aplikatuko da Legebiltzarreko Erregelamenduak oro har batzorde berezietarako xedatua, eta halakorik ezean, batzorde arruntetarako xedatua”.

**3.** Parlamentu-taldeek Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraziko diote zein diren haien batzordean dituzten ordezkariak, irailaren 25eko 12:00ak baino lehenago.

**4.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2003ko irailaren 22an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**Nafarroako Parlamentuko Batzorde arrunten osaera****FORU ARAUBIDEKO  
BATZORDEA**

## MAHAIA

Lehendakaria  
Carlos García Adanero jn. (UPN)  
Lehendakariordea  
Félix M.<sup>a</sup> Taberna Monzón jn. (IUN-NEB)  
Idazkaria  
José Luis Castejón Garrués jn. (SPN)

## BATZORDEKIDEAK

Calixto Ayesa Dianda jn. (UPN)  
Nuria Iturriagagoitia Ripoll and. (UPN)  
Jesús Javier Marcotegui Ros jn. (UPN)  
José Antonio Rapún León jn. (UPN)  
Amelia Salanueva Murguialday and. (UPN)  
Begoña Sanzberro Iturriria and. (UPN)  
Juan José Lizarbe Baztán jn. (SPN)  
Elena Torres Miranda and. (SPN)  
Patxi Zabaleta Zabaleta jn. (Aralar)  
Juan Cruz Alli Aranguren jn. (CDN)  
Begoña Errazti Esnal and. (EA)  
José Luis Etxegarai andueza jn. (Askotarikoa)

**EKONOMIA, OGASUN ETA  
AURREKONTU BATZORDEA**

## MAHAIA

Lehendakaria  
Evelio Gil Zardoya jn. (UPN)  
Lehendakariordea  
Maiorga Ramírez Erro jn. (EA)  
Idazkaria  
José Luis Izco Biarge jn. (SPN)

## BATZORDEKIDEAK

Laura Alba Cuadrado and. (UPN)  
Calixto Ayesa Dianda jn. (UPN)  
Carlos García Adanero jn. (UPN)  
Nuria Iturriagagoitia Ripoll and. (UPN)  
Jesús Javier Marcotegui Ros jn. (UPN)  
Amelia Salanueva Murguialday and. (UPN)  
Carlos Cristóbal García jn. (SPN)  
Jesús Pardo Gurpegui jn. (SPN)  
José Miguel Nuin Moreno jn. (IUN-NEB)  
Patxi Zabaleta Zabaleta jn. (Aralar)  
Juan Cruz Alli Aranguren jn. (CDN)  
José Luis Etxegarai andueza jn. (Askotarikoa)

**LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO  
ETA BARNE BATZORDEA**

## MAHAIA

Lehendakaria  
Pedro Eza Goyeneche jn. (UPN)  
Lehendakariordea  
Miguel José Izu Belloso jn. (IUN-NEB)  
Idazkaria  
Amanda Acedo Suberviola and. (SPN)

## BATZORDEKIDEAK

Laura Alba Cuadrado and. (UPN)  
Calixto Ayesa Dianda jn. (UPN)  
Luis Casado Oliver jn. (UPN)  
Nuria Iturriagagoitia Ripoll and. (UPN)  
Faustino León Chivite jn. (UPN)  
Miguel Alfonso Úcar Zaratiegui jn. (UPN)  
María Gracia Iribarren Ribas and. (SPN)  
José Luis Izco Biarge jn. (SPN)  
Patxi Zabaleta Zabaleta jn. (Aralar)  
Juan Cruz Alli Aranguren jn. (CDN)  
D<sup>a</sup>. Helena Santesteban Guelbenzu and. (EA)  
José Luis Etxegarai andueza jn. (Askotarikoa)

**TOKI ADMINISTRAZIOKO  
BATZORDEA**

## MAHAIA

Lehendakaria  
Pedro Tabar Oneca jn. (UPN)  
Lehendakariordea  
Txentxo Jiménez Hervas jn. (Aralar)  
Idazkaria  
Fernando Puras Gil jn. (SPN)

## BATZORDEKIDEAK

Josefina Bozal Bozal and. (UPN)  
Luis Casado Oliver jn. (UPN)  
Carlos García Adanero jn. (UPN)  
Faustino León Chivite jn. (UPN)  
Miguel Alfonso Úcar Zaratiegui jn. (UPN)  
Luis María Valero Erro jn. (UPN)  
María Gracia Iribarren Ribas and. (SPN)  
José Luis Izco Biarge jn. (SPN)  
Miguel José Izu Belloso jn. (IUN-NEB)  
Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jn. (CDN)  
Maiorga Ramírez Erro jn. (EA)  
José Luis Etxegarai andueza jn. (Askotarikoa)

**LURRALDEAREN ANTOLAMENDU,  
ETXEBIZITZA ETA INGURUMEN BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria  
Luis María Valero Erro jn. (UPN)  
Lehendakariordea  
Patxi Zabaleta Zabaleta jn. (Aralar)  
Idazkaria  
Helena Berruezo Valencia and. (SPN)

**BATZORDEKIDEAK**

Luis Casado Oliver jn. (UPN)  
Carlos García Adanero jn. (UPN)  
Leopoldo Jaén Sobrino jn. (UPN)  
Amelia Salanueva Murguialday and. (UPN)  
Begoña Sanzberro Iturriria and. (UPN)  
Miguel Alfonso Úcar Zaratiegui jn. (UPN)  
Amanda Acedo Suberviola and. (SPN)  
Fernando Puras Gil jn. (SPN)  
José Miguel Nuin Moreno jn. (IUN-NEB)  
Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jn. (CDN)  
Maiorga Ramírez Erro jn. (EA)  
José Luis Etxegarai andueza jn. (Askotarikoa)

**HEZKUNTZA ETA KULTURA  
BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria  
Amelia Salanueva Murguialday jn. (UPN)  
Lehendakariordea  
Miguel José Izu Belloso jn. (IUN-NEB)  
Idazkaria  
Aurelia Lumbreras Iñigo and. (SPN)

**BATZORDEKIDEAK**

Josefina Bozal Bozal and. (UPN)  
Pedro Eza Goyeneche jn. (UPN)  
Esteban Garijo Pérez jn. (UPN)  
José Antonio Rapún León jn. (UPN)  
Begoña Sanzberro Iturriria and. (UPN)  
Miguel Alfonso Úcar Zaratiegui jn. (UPN)  
Helena Berruezo Valencia and. (SPN)  
Carlos Cristóbal García jn. (SPN)  
Patxi Telletxea Ezkurra jn. (Aralar)  
Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jn. (CDN)  
Maiorga Ramírez Erro jn. (EA)  
José Luis Etxegarai andueza jn. (Askotarikoa)

**OSASUN  
BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria  
Esteban Garijo Pérez jn. (UPN)  
Lehendakariordea  
Miren Egaña Descarga and. (Aralar)  
Idazkaria  
Fernando Puras Gil jn. (SPN)

**BATZORDEKIDEAK**

Pedro Eza Goyeneche jn. (UPN)  
Carlos García Adanero jn. (UPN)  
Faustino León Chivite jn. (UPN)  
Jesús Javier Marcotegui Ros jn. (UPN)  
Luis María Valero Erro jn. (UPN)  
María José Vidorreta Alfaro and. (UPN)  
Aurelia Lumbreras Iñigo and. (SPN)  
Elena Torres Miranda and. (SPN)  
Ana Figueras Castellano and. (IUN-NEB)  
Milagros Oreja Arrayago and. (CDN)  
D<sup>a</sup>. Helena Santesteban Guelbenzu and. (EA)  
José Luis Etxegarai andueza jn. (Askotarikoa)

**HERRILAN ETA AZPIEGITURA  
BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria  
Laura Alba Cuadrado and. (UPN)  
Lehendakariordea  
José Luis Etxegarai andueza jn. (Askotarikoa)  
Idazkaria  
José Luis Castejón Garrués jn. (SPN)

**BATZORDEKIDEAK**

Luis Casado Oliver jn. (UPN)  
Carlos García Adanero jn. (UPN)  
Leopoldo Jaén Sobrino jn. (UPN)  
Faustino León Chivite jn. (UPN)  
Pedro Tabar Oneca jn. (UPN)  
Luis María Valero Erro jn. (UPN)  
Amanda Acedo Suberviola and. (SPN)  
Jesús Pardo Gurpegui jn. (SPN)  
Ana Figueras Castellano and. (IUN-NEB)  
Txentxo Jiménez Hervas jn. (Aralar)  
Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jn. (CDN)  
D<sup>a</sup>. Helena Santesteban Guelbenzu and. (EA)



**NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA  
ETA MENDI BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria  
María José Vidorreta Alfaro and. (UPN)  
Lehendakariordea  
José Miguel Nuin Moreno jn. (IUN-NEB)  
Idazkaria  
Carlos Cristóbal García jn. (SPN)

**BATZORDEKIDEAK**

Esteban Garijo Pérez jn. (UPN)  
Evelio Gil Zardoya jn. (UPN)  
Jesús Javier Marcotegui Ros jn. (UPN)  
Begoña Sanzberro Iturriria and. (UPN)  
Pedro Tabar Oneca jn. (UPN)  
Miguel Alfonso Úcar Zaratiegui jn. (UPN)  
María Gracia Iribarren Ribas and. (SPN)  
Juan José Lizarbe Baztán jn. (SPN)  
Miren Egaña Descarga and. (Aralar)  
Milagros Oreja Arrayago and. (CDN)  
Maiorga Ramírez Erro jn. (EA)  
José Luis Etxegarai andueza jn. (Askotarikoa)

**INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA  
ETA TURISMO BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria  
Nuria Iturriagagoitia Ripoll and. (UPN)  
Lehendakariordea  
D<sup>a</sup>. Helena Santesteban Guelbenzu and. (EA)  
Idazkaria  
Jesús Pardo Gurpegui jn. (SPN)

**BATZORDEKIDEAK**

Laura Alba Cuadrado and. (UPN)  
Josefina Bozal Bozal and. (UPN)  
Evelio Gil Zardoya jn. (UPN)  
Leopoldo Jaén Sobrino jn. (UPN)  
José Antonio Rapún León jn. (UPN)  
Pedro Tabar Oneca jn. (UPN)  
José Luis Castejón Garrués jn. (SPN)  
Juan José Lizarbe Baztán jn. (SPN)  
José Miguel Nuin Moreno jn. (IUN-NEB)  
Txentxo Jiménez Hervas jn. (Aralar)  
Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jn. (CDN)  
José Luis Etxegarai andueza jn. (Askotarikoa)

**GIZARTE GAJETAKO  
BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria  
Josefina Bozal Bozal and. (UPN)  
Lehendakariordea  
D<sup>a</sup>. Helena Santesteban Guelbenzu and. (EA)  
Idazkaria  
Elena Torres Miranda and. (SPN)

**BATZORDEKIDEAK**

Calixto Ayesa Dianda jn. (UPN)  
Pedro Eza Goyeneche jn. (UPN)  
Esteban Garijo Pérez jn. (UPN)  
Evelio Gil Zardoya jn. (UPN)  
José Antonio Rapún León jn. (UPN)  
María José Vidorreta Alfaro and. (UPN)  
Helena Berruezo Valencia and. (SPN)  
Aurelia Lumbreras Iñigo and. (SPN)  
Miguel José Izu Belloso jn. (IUN-NEB)  
Patxi Telletxea Ezkurra jn. (Aralar)  
Milagros Oreja Arrayago and. (CDN)  
José Luis Etxegarai andueza jn. (Askotarikoa)

**ERREGELAMENDU BATZORDEA****MAHAIA**

Lehendakaria  
Rafael Gurrea Induráin jn. (UPN)  
Lehen Lehendakariordea  
Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jn. (CDN)  
Bigarren Lehendakariordea  
D<sup>a</sup> María Helena Berruezo Valencia and. (SPN)  
Lehen Idazkaria  
Jesús Javier Marcotegui Ros jn. (UPN)  
Bigarren Idazkaria  
Félix María Taberna Monzón jn. (IUN-NEB)

**BATZORDEKIDEAK**

Calixto Ayesa Dianda jn. (UPN)  
Alberto Catalán Higuera jn. (UPN)  
Pedro Eza Goyeneche jn. (UPN)  
Leopoldo Jaén Sobrino jn. (UPN)  
Amelia Salanueva Murguialday and. (UPN)  
Miguel Sanz Sesma jn. (UPN)  
María José Vidorreta Alfaro and. (UPN)  
Amanda Acedo Suberviola and. (SPN)  
José Luis Castejón Garrués jn. (SPN)  
María Gracia Iribarren Ribas and. (SPN)  
José Miguel Nuin Moreno jn. (IUN-NEB)  
Patxi Zabaleta Zabaleta jn. (Aralar)  
Juan Cruz Alli Aranguren jn. (CDN)  
Maiorga Ramírez Erro jn. (EA)  
José Luis Etxegarai andueza jn. (Askotarikoa)

## Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kide bat hautatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 22an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Irailaren 15eko Foru Dekretuaren bidez, Amanda Acedo Suberviola andreak utzi egin dio Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko kide izateari. Horrenbestez, Nafarroako ikus-entzunezkoen jarduera arautu eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen uztailaren 5eko 18/2001 Foru Legeko 24.2 artikularekin bat, Parlamentuak bete egin behar du gertatu den hutsune hori.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluko hutsune bat betetzeko prozedurari buruzko txostena ikusirik, bai eta kontseilu horretako kideak hautatzeko arauak ere –Mahaiak 2001eko urriaren 8an hartutako erabakiaren bidez onetsi ziren– HAU ERABAKI DA:

1.- Amanda Acedo Suberviola kontseilu-kide izateari uko egin eta hutsunea gertatu denez Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluan, aplikatzea Mahaiak 2001eko urriaren 8ko erabakiaren bidez onetsitako arauak (102. NPAO, 2001eko urriaren 15ekoa), honako berezitasunekin:

a) Kontseiluan bete beharrekoa postu bakarra denez gero, parlamentu-talde bakoitzak hautagai bat besterik ezin izanen du aurkeztu.

b) Hautagaiak aurkezteko epea heldu den urriaren 6ko 09:30ean amaituko da.

c) Hautagaiak Herrilan eta Azpiegitura Batzordean agertuko dira heldu den urriaren 7an.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2003 irailaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

## Erabakia, Nafarroako Parlamentuan erabilera komunekoak diren areto eta geletan erretzea debekatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko irailaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrean otsailaren 14ko 6/2003 Foru Legea aplikatzeari buruz legelari nagusiak eginiko txostena ikusi ondoren, hona ERABAKIA:

1. Debeku da Nafarroako Parlamentuan erabilera komunekoak diren areto eta geletan erretzea, erre ahal izateko prestaturiko honako gune hauek izan ezik:

– II. Batzorde Aretoaren ondoko itxarongelan.

– Ponentzia aretoan.

– Lehen solairuko bilera gelan.


– Atalondoetan.

– Ostatuan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2003ko irailaren 24an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> <b>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</b> Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat ..... 40,27 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 1,02 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 1,20 »	